



## **UPV/EHU<sub>n</sub> IKERTZAILEAK PRESTATZEKO KONTRATAZIO DEIALDIA (2024) I. - II. - III. - IV. MODALITATEAK**

### **Ebaluaziorako onartutako eta baztertutako eskaeren behin betiko zerrenda**

Onartutako eta baztertutako eskaeren behin betiko zerrenda errektoreordetzaren webgunean argitaratze ostean eta deialdiaren 7.3 oinarrian ezarritakoaren arabera:

**7.3. Ebaluazio prozesua. Ebaluazio prozesua bi fasetan egingo da, eta ebaluazio izapideak, gutxien dela, bi hilabete iraungo du. Lehenengo fasean ofizioz ebaluatuko dira 7.1 oinarrian aurkezten den taulan ezarritako 1., 2., 3., 4., 5. eta 6. irizpideak, guztira 65 puntu izanik. Lortutako emaitzak handienetik txikienera ordenatuko dira zientziaren Ikerketaren arloko errektoreordetza 12 arlo handietarako (Zientziak, Ingeniaritza eta Arkitektura, Osasun Zientziak, Gizarte eta Lege Zientziak, Arteak eta Humanitateak). Antolamendu hori modu bateratuan egingo da 4 modalitateetako eskaerentarako. I. eta II. modalitateetara aurkeztutako eskaeren kasuan, eskatzaile bakoitzaren puntuaziorik onena aukeratu da. Zientziaren 5 arlo handietako bakoitzean, fase honetan puntuazio baxuenak (laugarren kuartila) dituzten eskaeren % 25 ukatuko dira, baldin eta puntuazio hori 25 puntutatik beherakoa bada. Laugarren kuartilean egon arren 25 puntu edo gehiago dituzten eskabideak bigarren ebaluazio fasera igaroko dira, gainerako eskabideekin batera.**

Ikerketaren Arloko Errektoreordetzak Ebaluaziorako onartutako eta baztertutako eskaeren behin betiko zerrenda argitaratzea erabakitzen du.

#### **Helegiteak:**

Erabaki honek administrazio bidea agortzen du eta honako bide hauek daude beraren kontra egiteko (aukerak bateraezinak dira):

1.- Lehenengo eta behin, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke erabakia eman duen organoari berari hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontaktzen hasita. Administrazio errekurtso hori jarriz gero, eta errekurtsoa jarri eta hilabeteko epean erabaki adierazirik jaso ezean, errekurtsoa ezetsizat joa izan dela ulertu beharko da. Horrela gertatuz gero, hurrengo atalean adierazitako auzibidera jotzeko aukera egongo da.

Rasu horretan, administrazioarekiko auzi errekurtsoa jartzeko epea sei hilabetekoa izango da, errekurtsoa ezetsizat joa izan den egunaren biharamunetik kontaktzen hasita (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legeari jarraituz (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, 123. eta 124. artikulua; 29/1998 Legea, uztailaren 13koa, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duena: 46. artikulua).

2.- Zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsoa jar daiteke Bilboko administrazio auzietako epaitegietan. Horretarako, bi hilabeteko epea dago, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita (29/1998 Legea, uztailaren 13koa, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duena: 8.3 eta 46. artikulua).

Leioan, 2024ko azaroaren 29an